HORI KONTATU ZIDAN

EKINTZA ETIKOAREN URGENTZIA

I

Iraganeko paisaiak egunerokotasunarekin nahasten direnean eta pentsamendu futuristak horren baitan eraikitzen ditugunean sortu daitezkeen zalantzen kontakizuna. Ekintza etikorako urgentzia azpimarratuz errelatoetatik abiatuta harremanak posthumanismotik ulertzeko beharren kronika.

II

Ongoing construction. Ikerketaz ari garenean ezagutzaz eta metodologiez ari garenez, galdetu beharko genuke nork sortzen duen ezagutza, nondik eta zertarako. Ikerketak balidatzeko eraiki dituzten irizpide ebaluatzaileek kapital akademikoa sortzeari begira daude. Ebaluazio irizpideak formatoak aztertzean oinarritzen dira, eta ez dago edukiaren esanguratasunarekiko inongo kezkarik. Eduki edota ezagutza bakoitzaren azterketak hori bera indagatzeko metodologiak aztertzea/sortzea dakar. Beraz itxurakeriari kultua egin ordez errealitatea ulertzeko modu kokatu eta subjektiboak balioan jar ditzagun.

I

eszena I

Gogoratzen naiz duela lau urte Idoia Zabaleta sortzailearen PER-FORA lana ezagutu nuela. Performance horretan bere bi ahizpak horma bat zulatzera gonbidatzen zituen. Lan horren inguruan arakatzen ari nintzela egin zioten elkarrizketa bat topatu nuen eta bertan zioen bera ez zela pertsona nostalgikoa: ez zuen hori ona edo txarra zen epaitzen baina baieztatzen zuen nostalgia problematikoa bilakatu daitekela aurrera begiratzea oztopatzen dizunean, iraganean ainguratzen zaituenean eta instanteari, egunerokotasunari eta, oraindik gutxiago, etorkizunari arretarik jartzen ez diozunean. Horrelako zerbait ote dira elkartzeak. Gaztelaniaz reencuentro litzatekena.

2019ko azaroan *afectos en educación: relaciones entre espacio, tiempo y cuerpos* topaketan gure bizitzetan erabakigarria izan den esperientzia bat partekatu genuen. Aurkeztu eta gero, Fernando Hernandezek galdetu zigun ea zein modutan elkar aurkitze horrek, el reencuentro, nostalgiari apelatzen dion eta ea horrek ez ote dituen esperientziak idealizatzen. De que manera el reencuentro apela a la nostalgia y si eso no idealiza las experiencias.

Erantzun genion beharrezkoa dela atzera begiratu eta bizipenak aztertzea gaur egungoa nola bizi dugun ulertu ahal izateko, gure bilakaera nolakoa izan den ulertzeko eta horrela egin eta izan nahi dugunaren inguruan erabakiak hartu ahal izateko. Garrantzitsua da ulertzea oroitzapenak gaur egungo toki honetatik eraikitzen ditugun fikzioak direla eta horrenbestez istoriaren zati bat bakarrik direla. Baina gure *istoria* da azken finean. Horrek nola afektatu gaituen eta nola afektatu dugun pentsatzea beharrezkoa da gure burua ulertzeko, baita zalantzan jartzeko ere.

Nola ez ditugu esperientziak idealizatuko?

La nostalgia es un eufemismo embellecedor del tiempo que se fue

Marta Sanz 2018

irudia 1: nostalgia patologikoa agertzen da iragana idealizatzen dugunean eta han babesten garenean

elkarrizketa I
artxibora joan nintzenekoa
eta lagun bati kontatu nionekoa

o sea, tia, aurrekoan artxibora jun nintzan mahoneran emakumek lanen dauden momentu hoien ingurun gordeta dauden irudik bazeuden ikustea ta flipatu in nun porque mobida izan zan hizketan genbiltzala galdetu niyola a ver egunerokotasunan inguruko argazkik bazezkaten. Ta a ver, pentsatze nun etziala eongo baina erantzuna izan zan *ez, a ver, guk hartzen ditugu ba interesantek o inportantek izan al dian irudiak. Gertatu izan zaigu jendia etorri dala bere etxeko argazkik eta lagatzea baino ezetz esaten diegu ze klaro a ver...*

elkarrizketa II
Bitori Aranburu Altubek
Euskal Herriko Ahotsak proiektuan
errezeta baten kontakizuna egin zuenekoa

Gu ba hoixe, artua be eitten giñuan, artua ekartze zeben ta hantxe... errotan eitten zeben. Artua bebai... zera, artua da esnia ero noizian behin ta jaten giñuan ta artozko taluak be bai eitten zittuen amak iñoiz. Ta morokilla? Morokilla bebai eitten zeben bai. Morokilla zela itten da? Ura irakitten ipini gatz pixkatekin eta irakitten danian ero etara ta bota artua ta erain erain asko in, ondo batidu arte ta geo ondo egosi, sutan egosi, bueltak bueltak emonda. Da nei asko gustatzeatan ta gue seme alabei ta etxakue gustatzen baña. Da iñoz eitten neban morokilla, baña emoteotzan ura da esnia erdibana bota ta askobe goxuagua urakin bakarrik baño, ura ta esnia nahastuta askoz be gosua. Da berua, ta esne hotza bota gero ta izate zan igual hartu plato sakonien, da esnez bete zera esne hotzakin ta bera berua ta esne hotzakin gero... Nei asko gustatzeatan. Gatza ero botatze jako horri? Gatz pixkat bai, urai, urak irakitten zebanian. Ta bueno ni asko gustatzeatan. Aspaldixan eztot jan e, baña eindda bero berua ta gero esne hotza bota ta esne hotzakin jaten. Da taluak bebai, artozkuak be bai, itten giñuzen iñoiz, ta oin berriz feixa ta fandakuan da han ibiltzen ga erositta jaten. Oin modan dao.. Modan bai bai. Ta oso onak itten zittuan gure amak be e, ta artuan taluak... umiak giñanian bai ogizkuak ta bai artozkuak gustora jaten giñuzen. Ta talua esniakin ala? Esniakin ta ostian txokolatia ipinita be bai ta hirugiharriekin be gosua izate zan ipinita ta gaztaia be ipinita biun biun itte zan han beruan da bai.

eszena II

Gogoratzen naiz Helen Hesterren *xenofeminismo: tecnologias del género y políticas de reproducción* lana irakurri nuenean ulertu nuela emakumearen gorputzaren mistifikazioa estrukturak erabiltzen duen beste estrategia bat dela batez ere bizitza kolektiboko aspektu batzuetan emakumearen ahotsak isilarazteko. Emakumea lurraren zaintzarekin lotzen duten eta naturarekiko sentsibilizazioa berezkoa duela dioten diskurtsoek gorputz erreproduktiboak izaten jarraitzeko beste artikulazio bat besterik ez dira.

Bizitza eta erreprodukzioaren norabide horretatik ezkontzarekin egingo genuke topo eta familia nuklearraren noziora iritsi gaitezke, eta berau, Estatua eta Eliza mantentzeko beharrezkoak diren aspektuak detektatu ditzakegu. Emma Goldmanen hitzak ekarriaz, ezkontzak eta maitasunak zerikusi gutxi dute: ezkontzak paktu ekonomiko bat bihurtzen dira, segurtasunezko paktu bat. Maitasuna askatasunez bizitzea aldiz, emanzipaziorako biderik garrantzitsuena litzateke. Harawayen arabera aldiz, emakumearen emanzipaziorako bide bakarra cyborg-etan dago.

Aita, ama, zenbat urtekin ezkonduko naiz?

Una de las consecuencias de la incapacidad de Marx para ver más allá de la fábrica y entender la reproducción como un área de trabajo (y de trabajo sobre todo femenino) es que no se dio cuenta de que mientras escribía *El capital* se estaba desarrollando un proceso de reforma histórica que en pocos años llevó a la construcción de la familia proletaria nuclear.

Silvia Federicci 2018

irudia 2: nik egiten nun lana errenteian eta ateratze nizenian lanetikan ordun zure attonak, ezkongaiak giñenian, motuan hartu ta gauez eramaten zian oiartzunera, nere jaiotetxera.

elkarrizketa III
artxibora joan nintzenekoa eta
*Escuela de Hogar*reko ikasleak epaitegiko eskaileretan (1930)
argazkia ikusi nuenekoa

zer da *Escuela de Hogar* hau?

elkarrizketa IV
Bitori Aranburu Altubek
Euskal Herriko ahotsak proiektuan
kantatu zuenekoa

Lau ta lau sardina bakalao
bost ta bost
daukanak [...]

Txantxulerio kamiñero
ez daukat dirurik
lau alabatxo ditut
ezkondu gabe

bosgarrena da semia
kapote zarrakin
konejua dirudi bere bizarrakin

hori zela itte zinuten? korruan ala? bai, korruan danak... orduan errekreuan beste gauzaik ez gendun ba oain ba gauza larrei ba orduan holakotxe gauzak.

eszena III

Gogoratzen naiz 2019ko urria aldera Greta Thungberrek Nazio Batuetan diskurtsoa eman zueneko irudiak ikusi nituenean. Irudiak ikusi nituen baina ez nuen bideoa erreproduzitu. Diskurtsoa entzun ordez, horren inguruan egin ziren memeak ikusten igaro nuen denbora.

Aldaketa klimatikoaren diskurtso hegemonikoa haurra zentroan jartzearen perspektibatik eraikitzen ari da: eta berriz ere Hesterri aipamena eginez, zentroan jartzen den haurra mutila, txuria eta begiurdinduna da, berak dioen niñoninfa baten irudia erabiltzen da. Irudia berarekin batera, zenbat aldiz entzun dugu baina zer utziko diegu haurrei? Aldaketa klimatikoaren errelatoek erreprodukzioan oinarritzen diren bizitza ereduak mantentzearen ideiatik abiatuta eraikitzen ari dira. Hala ere, errelato horien bazterretan bestelako diskurtsoak azaleratzen dira adibidez, erreproduzitu nahi ez dutenena edo ezin dutenena. Lehehengoen kasuan, hau bizitzeko toki seguru bat ez dela aipatzen da, bigarrengoengan ez dago bizitzarako tokirik.

Kapitalismoak, katastrofismoan erori gaitezen nahi du, *no future* horretan, baina gogoratzen naiz nola Marina Garcesek aipatzen zuen posizio horretan kokatzeak ez zigula irtenbide aukera posibleetan pentsatzen jartzen uzten.

Kapitalismoak beldurraren pedagogia erabiltzen duen bitartean, mr. wonderful bezalako mezuak zabaltzen dituzte esanez: *make it happen* (ingelesez), *barre egin zazu bizitza zoragarria da* edo *gaur egun handia izango da.* Positibismo faltsu horretatik neoliberalismoak egunerokotasunean gertatzen zaigun guztiaren ardura guk geuk daukagula sinistarazten saiatzen da eta nozio hauetatik irakurketa sakonagoak egiten ez dituzten identitateak eratzen ditu. Guzti hau gainera, plano indibidual batean kokatzen da eta ez da ardura kolektiboaren azterketa bat egiten, eta are gutxiago, diruraren sistema hau zalantzan jartzen.

Hari honetatik, sistemak emozioez hitz egitea nahi du eta ez afektuez. Garrantzitsua da afektuen pedagogia mahai gainean jartzea irakurketa baketsua egin al izateko nola afektatzen dugun eta gaituzten aztertzeko, nola afektatzen uzten garen ulertzeko. Entender que esto va de cuerpos y que vivir es conmoverse.

Eta gorputzez ari garen honetan, aldaketa klimatikoaren diskurtso hegemonikoak alde batera uzten ditu genero identitateei dagozkien hausnarketak. Momentu historiko honetan non teknologia garatu den gure gorputzak moldatzeraino iritsi gaitezkeela, aukera daukagu beste gorputz eredu batzuetan pentsatzeko: emakume-gizon-genital-erreprodukzio nozioetatik haratago mugitzen diren gorputzetan pentsatzeko. Horrek, harremanak eta bizitza ulertzeko bestelako eredu batzuk gureganatzera eraman gaitzake.

Como nos relacionamos con lo humano y lo no-humano?

Donde nos vamos a situar a partir de ahora?

Aunque es de sobra conocido que la cultura de mercado ejerce una poderosa función educativa en cuanto a la movilización de deseos y la configuración de identidades, no deja de sorprender el hecho de que un número cada vez mayor de encuestadores señala que, cuando se pide a los jóvenes que den una definición de democracia, estos respondan refiriéndose a “la libertad de comprar y consumir lo que se quiera, sin restricciones gubernativas”.

Henry Giroux 2000

irudia 3: vivir es conmoverse y moverse con